ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2023ko irailaren 27a, asteazkena • 114 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 42/2023 Foru Dekretua irailaren 26 koa. Onestea Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritza sortzea

Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza izan da orain arte lurralde antolamendua, hirigintza plangintza, hirigintza kudeaketa eta diziplina eta lurralde informazioa bezalako gaien ardura izan duen zuzendaritza unitatea.

Legegintzaldi honetan, diputatu nagusiak, ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuaren bidez, foru aldundiko sailak ezarri ditu 2023-2027 legegintzaldirako, eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailari esleitu dizkio, besteak beste, lurralde plangintza eta informazioari eta hirigintza kudeaketa eta diziplinari buruzko eginkizunak eta eskumen arloak. Hori dela eta, komenigarria da zuzendaritza unitate bat sortzea, aipatutako jarduketa eremuei buruzko eginkizunak kudeatu eta garatuko dituena, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.1.a) 2 artikuluan xedatutakoaren babesean, zeinak Gobernu Kontseiluari gordetzen baitio sailen egitura organikoa eta beste edozein antolamendu arautegi onestea, arau horren 43. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako esparruaren barruan.

Horregatik, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritza sortzea Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailean. Zuzendaritza horrek orain arte Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak lurralde plangintza eta informazioaren eta hirigintza kudeaketa eta diziplinaren arloan betetzen zituen eginkizunak beteko ditu.

Bigarrena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko egitura organikoa arautzen duen arautegia onesten ez den bitartean, Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritzak beteko ditu Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 46. artikuluan adierazitako eginkizunak.

Hirugarrena. Foru dekretu honek ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 26a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua
ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2023.09.27 05:19:24 Z